BIZITEGI ERAIKINA — LOIOLA 1

D MAILA



Egilea eta data: Justo de Ibaceta; 1869

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz bastardea eta bi goi oin dituena. 1892an eraberritu egin zuten, bastardea behe oin bihurtuz eta bi oin gehituz (hirugarrena fatxada planoan eta laugarrena mantsardatua). 1921ean 4. oin mantsardatua fatxada planoko oin gisa (4.a) eraldatu zen, eta 5.a eta 6.a –atzeraemana– gehitu zituzten. Gaur egun 6. eta 7. oinak mantsarda bikoitzekoak dira. Harlanduzko behe oina. Goi oinak entokatuak daude bao azpadurak (harrizkoak 1.etik 3.era) nabarmenduta. Kantoian hormigoizko begiratokiak ditu (1943koak).

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena.
A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (6. eta 7. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.